

BESTELAKO XEDAPENAK

JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA

2225

EBAZPENA, 2012ko apirilaren 27koa, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariarena, «Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Lankidetza Erakundea» aitortpena arautzen duen dekretu-proiektua jendaurrean jartzeko dena.

4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta gizonen Berdintasunerakoa argitaratu zenetik, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea sortzeari buruzko otsailaren 5eko 2/1988 Legearen menpean sortutako «Emakumeen eta gizonezkoen aukera-berdintasunerako Lankidetza Erakundea» arautzen duen azaroaren 8ko 424/1994 Dekretuak daukan arauketa zahar eta urri bihurtu da. Emakumeen eta gizonezkoen aukera-berdintasunerako lankidetza aitortpen inguruan 41. artikuluan egiten den arautze berriak garapen egokia izan behar du.

Beraz, beharrezkoa den moldaketa eta arautze berria egiteko ezinbestekoa da idazkera berria ematea «Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Lankidetza Erakundea» aitortpenari.

Xedapen orokorrak egiteko prozedurari buruzko abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 8.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, herritarren eskubide eta bidezko interesei eragiten dieten xedapen orokorrek entzunaldiaren izapidea igaro beharko dute. Era berean, xedapenen izaerak hala eskatzen badu, jendaurrean jarri beharko dira.

Egin nahi den arautzeak zehaztugabeko hainbat pertsona fisiko eta juridikori eragiten die, eta pertsona horiek ez daude beti guztiak biltzen edo ordezkutzen dituzten antolakundeetan sartuta; horregatik komeni da jendaurrean jartzea.

Proiektu hau egiteko prozedurari ekitea agintzen duen lehendakariaren azaroaren 25eko 29/2011 Dekretuak Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeari agintzen dio hartarako izapideak egitea.

Horiek horrela, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Jendaurrean jartzea «Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Lankidetza Erakundea» aitortpena arautzen duen dekretu proiektua. Hogeit egun baliodunez jarriko da ikusgai, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Bigarrena.– Aurreko atalean xedatutakoaren ondorioetarako, eta alegazioak aurkeztu ahal izateko, dekretu proiektuaren edukia eskuragarri egongo da Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko Idazkaritza Nagusian (Manuel Iradier 36), Interneteko atarian (www.emakunde.euskadi.net), eta Gobernu Irekiaren atarian (www.irekia.euskadi.net).

Vitoria-Gasteiz, 2012ko apirilaren 27a.

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendaria,
MARÍA SILVESTRE CABRERA.